

PROGRAMA

NOLA JARRI ZINTZARRIA KATUARI

BERNARDO ATXAGA

NOLA JARRI ZINTZARRIA KATUARI?

Sortze lan guztiek pareko abiapuntua dute. Ehunaren aurrean kokatzen den pintoreak, pianoan soinu bila dabilen musikariak, taulatu baten gainean entseatzen duen aktoreak, ordenagailuaren aurrean eseri eta testu bat idazten hasten den idazleak... Guztiak ere pertsonak dira, hots, mundu bakanak, “mundu bakanak mundu orokorraren baitan”.

Baina mundutik obrarako bidea ez da hori eta horrenbestez egiten. Hizkuntza batera jo beharra dago derrigorrez, *itzulpen* bat behar da, *fabrikazio* bat. Idazlearen kasuan, hitzak dira bere lehengaia, eta nobelak, ipuinak eta poemak lehengai hori antolatzeke era historiko nagusiak. Tailerrean —nola jarri zintzarria katuari?— eginkizun horren inguruko gaiak aztertuko dira.

GAIAK

— Robinson Crusoeak ez zukeen nobelarik idatziko. Mintza gaitezen gizarteak idazteko lanean duen eraginaz. Aipa ditzagun hainbat adibide, hurbilekoak bezala urrunekoak.

— Ibai batek bezalaxe, fikziozko testu batek korrontea eduki behar du. Alegia, mugimendua, erritmoa. Aztertu daiteke gai hau kristalezko bolarik gabe ere. Begiratu paperei, irakurri erne hogeit hamar orrialde, eta horrekin nahikoa.

— Fikziozko lanei buruz ari dela, Georg C. Lichtenbergekek dio edukiak eta formak bat egin behar dutela, baina ez gorputzaren eta arroparen moduan, gorputzaren eta arimaren moduan baizik. Bestela esanda, aforismoaren zorroztasunik gabe, nobelek edota ipuinek,

poemek ere, batasun bat eduki behar dute, bai azalean nola muinean. Ikus dezagun nola lortzen den.

— Zertaz ari gara poesiaz ari garenean? Zer da poesia? Poesiari buruz etengabe entzuten diren ergelkeriak munduaren akabera iragartzen al dute? Gai interesgarria.

— Zertaz ari gara irakurtzeaz ari garenean? Egia ote da liburua ispilua dela irakurlearentzat? Zergatik ez du jendeak irakurtzen? Gaztetako trauma baten ondorioa ote?

— Utopia, Liliput, Altxorraren uhartea, Yoknapatawpha-ko konterria... Leku horietan eta beste milatan gertatzen dira liburutako gora-beherak. Har dezagun fikzioaren alde hori aintzat. Entzun ditzagun egilearen ahotik “Obaba” deitutakoari buruz sekula aipatu ez diren kontuak.

— *Ecce Homo*. Egilearen erantzunak tailerrera hurbildutakoen galdera eta komentarioei.

Tailerra hasi aurreko irakurketak: “Obabako lehen amerikanoa” (*Soinujolearen semea*, atala); “Italiara amarekin” (*Nevadako egunak*, atala).

DATAK

Azaroak 8: 16:00-20:00

Azaroak 9: 10:00-13:00

Azaroaren 9an, 13:30etan, Xanti jatetxean bazkari bat egongo da Bernardo Atxagarekin, ikastaroaren itxiera gisa. Kasu honetan ikastaroaren prezioa 110 euro dira.